



Bertsozale Elkartearen Berripapera

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

Gernika-Lumon izango da Bertso Eguna 2024an

Urtarrilaren 27an egingo da. Sarrerak abenduaren 19an jarriko dira salgai, eta orduan emango ditugu xehetasun gehiago.

Gauean da urte berria, eta harekin batera iritsiko da bertsozaleen urteko lehen hitzordu nagusienetako bat: Bertso Eguna. Azken urteotan egindako bideari jarraituz, lurraldez aldatu eta Gernika-Lumon hartuko du lur aurtan.

Urtarrilaren 27an izango da hitzordua, eta egun osoko plana ari gara antolatzen, Laboral Kutxa, Gernika-Lumoko Udala eta Lilibertso bertso-eskola lagun ditugula. Goizean lurralde ezberdinetako bertso-eskolekin bertso poteoa egingo da. Ondoren, bazkaria izango da Astran, eta haren segidan egingo da eguneko saio nagusia tokian

bertan. Ondoren, festan jarraitu nahi duenak ere izango du aukera.

Abenduaren 19an jarriko dira sarrerak salgai bertsozale.eus atarian, eta orduan emango ditugu xehetasun gehiago.

Bertsolari Egunezik Bertso Eguner

1968an hasi zen antolatzen gaur egungo Bertso Egunaren aitzindaria. Hasiera batean, Bertsolari Eguna

izena hartu zuen, eta garaiko hainbat bertsolarien omenaldi eguna izaten zen. 1987an Bertsozale Elkarteak hartu zuen antolatzeke ardura, betiere Donostiako Udalarekin elkarlanean. 1995ean omenaldi kutsua alde batera utzi eta bestelako itxura hartu zuen egunak; izena ere aldatu zitzaion, eta Bertso Eguna izatera pasa zen.

Donostian egin zen urte luzez, eta 2017ko etenaren ondotik eta 2018tik aurrera, Euskal Herri osoan mugitzen den egitasmo ibiltaria da egun, Bertsozale Elkartearen oinarriko helburuekin bat eginez: herrialde osoan eragitea. Pandemiak eraginda 2021ean eta 2022an data eta egiteko modua aldatu baziren ere, Bertso Egunak egin ahal izan genituen, eta 2023an egun osoko plana antolatzeari ekin genion berriro ere.



Egun osoko plana ari gara antolatzen. //XDZ



JEXUX MARI
IRAZU MUÑOA
Asteasu, 2023-10-20
III. Pello Errota Sariketa.
Txapeldunaren agurra.

Doinua: Gazteak Lizargatez

Bertso eskola aurrean
ai gera kantari
hargatik mila esker
udaletxeari.
Bihotzez dijoakio
txapela opari
Harituz sortu zuen
belaunaldiari
eta erreleboa
hartuko dunari.

Zein ezaugarri dituzte bertso-eskolek?

2022-2023 ikasturteko bertso-eskoletako datuen bilketa egin du Bertsozale Elkartek. Hauek dira emaitzetako batzuk.

1.507 lagun elkartzen dira 119 herritako bertso-eskoletan beren zaletasuna partekatzeko. Horixe diote Bertsozale Elkartek 2022-2023 ikasturtean bertso-eskolengandik jasotako datuek. Belaunaldi ezberdinek partekatzen duten zaletasuna da gainera, 1.055 haur eta 452 heldu inguru elkartzen baitira; eta 89 irakasle aritzen dira saio horiek gidatzen.

Hainbat aldagaien araberako datuak xehatu dira. Adina eta generoa kontuan hartuta, bertso-eskolako kide parte-hartzaileen profila aldatu egiten da. Partaide guztiak aintzat hartuta (1.507 lagun) emakumeen eta gizonen arteko kopurua orekatua da; aitzitik, urteetan aurrera egin ahala kopuruak dezente aldatzen dira. Haurren taldeetan nesken parte-hartzea handiagoa da (%59), baina justu kontrako joera dago helduen taldeetan, horietan %71 baitira gizonezkoak eta %29 emakumeak. Era berean, haurretan talde mota ugariena neskek soilik osatutakoa da, eta helduetan ezaugarri horietako taldeak oso bakanak dira.

Esan dezakegu, umetan bertso-eskoletan ibili izan direnen artean, helduaroan %43k jarraitzen dutela: nesken kasuan, helduen taldeetan %22k jarraitzen du, eta mutilen kasuan, %78k.

“ Zenbaki hauen atzean dauden errealitateak ulertzeko azterketa kualitatiboak beharko dira ”

Helduen bertso-eskoletan emakumeen eta gizonen kopuruaren artean dagoen arrakala erakusten duten datuak dira: Zergatik uzten dute emakume helduek bertso-eskola? Bertso-eskolan elkartzeari utziagatik, bertso munduan jarraitzen dute? Zer

aldatu daiteke bertso-eskoletako dinamiketan oreka lortze aldera? Galdera hauek eta beste batzuk erantzuteko nahiz zenbaki hauen atzean dauden errealitateak ulertzeko azterketa kualitatiboak beharko dira.

Euskararen transmisioari dagokionez


Bertso-eskolako kideen artean euskara etxetik kanpo jaso dutenak eta zenbat diren etxeko transmisioetik jaso dutenak, datu horiek ere jaso ditugu lehen aldiz: haurretan %18a da eta helduetan %22a euskara etxetik kanpo ikasi eta bertso-eskolara datorrena.

Talde gehienak bat-batean trebatzeko elkartzen dira (101 talde), baina badaude hasiberriak edota txapelketa prestatzeko helburuz elkartzen direnak ere. 209 talde horietako irakasleen gehiengoak Bertsozale Elkartek kontratatzen ditu (%77).

Bildutako datuak 2022-2023 ikasturtekoak dira, eta bertso-eskoletako arduradunek eta irakasleek betetako galdetegiei esker lortu ditugu. Datu bilketa hau lau urtetik behin gauzatzen dugu, eta Bertsozale Elkartek Euskal Herriko Unibertsitatearekin duen elkarlanari esker egin dugu. Datuak Xenpelar Dokumentazio Zentroan gorde dira eta konfidentzialtasuna zainduz, ikerketerako baliatu ahalko dira.

Esan bezala, lortutako datuak kuantitatiboak dira, eta beraz, zenbakion atzean dauden errealitateak ulertzeko bestelako azterketak beharko dira. Era berean, tokian tokiko irakurketak ere egin beharko dira, egoerara egokitutako estrategiak diseinatzeko.

Datu gehiago bertsoeskola.eus atarian eta bertso-eskolen mapa bdb.bertsozale.eus webgunean.



Bertso-eskolek betetako galdetegiaren bidez lortu dira datuak. //XDZ

Euskal Herriko Bertsozale Elkartek eta LABORAL Kutxak elkarlanerako hitzarmena berri du

Finantza erakundeak Bertsozale Elkartearen proiektu osoa laguntzen eta babesten jarraituko du. Horri esker, bertsolaritzak bultzada handia jasoko du beste lau urtean.

Euskal kultura eta euskara sustatzeko helburuan bat eginda, elkarlanerako hitzarmena berri du Euskal Herriko Bertsozale Elkartek eta LABORAL Kutxak. Hilaren 10ean berretsi genuen konpromisoa Arrasaten: Igor Elortzak, Euskal Herriko Bertsozale

Elkarteko Lehendakaritza Taldeko kideak, eta Ibon Urgoitik, LABORAL Kutxako Negozioaren Garapenerako Zuzendariak, sinatu dute hitzarmena.

2015ean sinatu zen lehen aldiz elkarlanerako hitzarmena eta duela lau urte berri du; urteotan egindako bidearekin pozik eta elkarlanean sinetsita errepikatu da akordioa. Hitzarmen honi esker, LABORAL Kutxak Bertsozale Elkartearen proiektu osoa laguntzen eta babesten jarraituko du: besteak beste, plazan, hezkuntzan, edota ikerkuntzan gauzatzen ditugun proiektuetan eta hauen gizarteratzean. Halaber, elkarlan orokorraz gain, bi aldeentzat interesgarri izan daitezkeen proiektu zehatzetarako elkarlanerako aukera ere jasotzen du akordioak.

Bertsolaritza zaintzea, sustatzea eta etorkizuna ziurtatzea ditu helburu Bertsozale Elkartek; gizartereantzat onuragarriak diren hainbat alorretan ere eragiten du: pertsonen garapen eta ongizatean, euskararen normalizazioan edota kultur ondarearen zaintzan, esate baterako.

LABORAL Kutxari dagokionez, euskal kulturaren eta euskararen garapenaren aldeko lana eta konpromisoa entitatearen Estatutu Sozialetan jasotzen da; izateko modu horri erantzunez hamaika proiektu bideratzen laguntzen du.

Hitzarmen honi eta LABORAL Kutxaren ekarpenari esker, bertsolaritzak bultzada handia jasoko du beste lau urtean.



Arrasaten elkartu ginen hilaren 10ean Bertsozale Elkarteko eta Laboral Kutxako ordezkariak. //XDZ

Txapelketak finaletik gertu

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako azken finalaurrekoa izango da asteburu honetan. Nafarroakoari txapelketako azkena baino ez zaio falta: finala.

Larunbatean izango da Bizkaiko Bertsolari Txapelketako azken finalaurrekoa. Lemoako kiroldogian izango da, 17:00etatik aurrera, eta Aissa Intxausti, Ibai Amillategi, Josune Aramendi, Nerea Ibarzabal, Oihana Bartra eta Onintza Enbeita ariko dira bertsotan, Idoia Anzorandiaren esanetara.

Behin saioa amaitutakoan jakingo dugu nortzuk ariko diren bertsotan abenduaren 16an, Bilbao Arenan.

Nafarroako finala, zehaztuta

Asteburu honetan atsedean hartuko du Nafarroako Bertsolari Txapelketak, eta hurrengoan izango da finala. Abenduaren 2an izango da, Iruñeko Anaitasunan, 17:00etatik aurrera. Xehetasun guztiak ostiralean eskainiko dira prentsaurrekoan.



Txapelketei jarraipena egiteko
www.bertsozale.eus eta www.bertsoa.eus



Puntu jarrita

MAITE SARASOLA ISAZELAIA

Xalbat, bada, eder-ederra da bertsolari izatea Deustun. Izan ere, gure auzoan bertsoan dena dago egiteko, beraz, bururatutako aukera guztiak dauzkat esperimentatzeko zentzu guztietan, eta zorionez, ondo baino hobeto hartuak izaten dira: gazte bertso saioak, kalejirak edozein aitzakiarekin... Horrez gain, aukeratzeko parada izaten dut, zein bertsoera mota erabili kantarako, zein publiko motari zuzendu, zein gai landu, zein erregistro aukeratu saioetarako... Esango nuke gure eremu esperimental dela Deustu, bertatik kanpo edo plaza bertsozaleago batera joan eta probatu duzun horrek funtzionatzen duen edo ez ikusteko.

Bestalde, Deustu bada unibertsitateko ikasle askoren bizileku astean zehar, eta kopuruz gazte euskaldun asko bizi dira bertan. Bertso-eskolan zerbait antolatu izan dugunetan (Aferak bertso dinamika, adibidez) entzulegoaren erdia baino gehiago ikasleek betetzen dute, gogotsu joaten dira bertsolarien lana txalotzera, eta hori ere bada auzoan bertsoan jarraitzeko eta bertsoaren aitzakiarekin mugimendua sortzeko motibo. Nire ustez, aurkikuntza bat izan da hau, eta bide eman dit beste ate batzuk irekitzeko.

Gainera, gaztetxo batzuen bertso-irakasle ere banaiz, bai Deustun eta baita Bilboko Kafe Antzokian ere, eta biziki betetzen nau umeez egunetik egunera bertsozaintzari gogotsuago heltzen diotela ikusteak, gero eta bertso dotoreagoak osatzen dituztelarik. Hori ere bada Deustun bertsoan aritzeak ireki didan bide bat, eta jarraitu nahiko nuke bide hori sendotzen eta goxotzen, hemendik gutxira ume horiek, nirekin batera, oholtza gainean kantuan ikusiko ditudan esperantzaz.

Guk gurean jarraituko dugu Deustuk kantuan jarraitu dezan hainbat urte luzez.

Jone, zuretzako hurrengo galdera: nola aberasten dute eskola-umeez gure bertso-ibiltzidea? Eta nola elikatzen duzu zuk haiena?

Koplak

Datorren astean amaituko da BBK Sariketa

Finalurrekoak aste honetan eginda, azaroaren 29an izango da BBK Sariketako finala. 18:00etan izango da, BBK Sala aretoan, eta interesa duen edonor agertu daiteke ikustera. Lau kanporaketa saio izan dira aurretik sariketan, eta hiruzpalau bertsolariko hamabost taldek hartu dute parte, 50 bat partaide guztira.

Poto-Finixa




Oholtzan argi ibiltzea

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Gurekin harremanetan jartzeko

Bazkidetza datuak aldatu nahiz izanez gero, jarri gurekin harremanetan bazkidetza@bertsozale.eus posta elektronikora idatzita. Halaber, bertsoarrerak.eus atarian erositako sarrerekin arazorik edo galderarik baduzu, idatzi bertsoarrerak@bertsozale.eus posta elektronikora. Elkarte bakoitzarekin harremanetan jartzeko bideak www.bertsozale.eus atarian topatuko dituzu.



Ilustrazioa: Higinia Garay

Gure kultura sustatzen dugu, gure *gizartearen* sustraitzea eta kohesioa *bultzatzeko*.

LABORAL
kutxa